

tzen du hartutako bidearen balioa eta egokitasuna.

Gainera, Herriaren erakundeak hainzakotzat hartzen ikasteko ordua ere bada. Denok gabilta Herria salbatu nahiaz. Baina Herria salbatu nahi duena, saia bedi Herriaren erakundeak ere errespetatzen. Bestela, berriz, horrelakoaren zentzun politikoari ez diot antzik ematen.

ERA ASKOTAKOAK

Nolanahi ere, gaur Euskal Herrian bizitzeko, beste herritan gertatzen den bezala, pluralismoa ametitu beharra dago gauza askotan: politikabideetan, erlijio mailan, kulturaren, etab. Hortara ez gaude oso ohituak euskaldunok. Batzutan, adibidez, aski da batenbat fedegabea dela jakitea, halakoa euskaldun jatorren sailetik kentzeko. Fededuna ez denari, zenbaitek asmo txarra eta Herria izorratu nahia besterik ez diote sumatzen. Gauzak horrela nahastén direnean, ez dago inora joaterik, pendizetik behera ez bada.

Nahiko egoskorra eta odolberoa ikusten dut jendea gure artean. Hilzoria eta eguneroko borroka latzak hori ekartzea ez da guztiz harritzeko. Hala eta guztiz ere, ez liguke batere gaitzik egingo geure arteko hauziak hotzean aztertzen saiatzeak. Askotan, zientziari berari ere jaramon guti egiten diogu geure Herriko gorabeherak aztertzerakoan, eta horrek kalte handia egin diezaguke. Ika-mikak eta arazo pertsonalak alde batera utziz, saia gaitzen hauziak ahalik eta zehatzen aztertzen, zientziari berea emanez.

Bertute askoren artean, euskaldunok badugu aje nabarmen bat: ez dugu elkar hizketarako balio. Berehala sumintzen gara. Solasean hasi orduko, txinparta dariola ikusiko duzu jendea. Bistan dagoenez, gure aiurriaren alderdi honek ez digu mesede handirik egingo gure arteko hauzi-mauziak garbitzeko. Hontan ere badukegu zer ikasirik aurrera egin nahi badugu.

IRTENBIDEA

Bukatzer a noa. Hemen garbi ageri dena zera da: gure Herriari irtenbide bat eman behar zaiola eta hortara garamatzaketen bide egokiak bilatzea eta urratzea dagokigula. Hauxe da hemen puntu nagusia. Honi begira daude besteak. Herria egin beharrean gaude eta horixe da guzua.

Hortarako, bakarrean ibiltzea baino hobe izango dugu elkartasunean lan egitea, politika lana taldeka egiten bait da. Eta taldeek ere, setakeria husean eta elkarren teman ibili beharrean, gizalegezko elkar hizketa onurakor batean saiatuko balira, hainbat hobe.

Gure herri giroakpuntuok idaztera

bultzatu nau. Zuk esango, irakurle, ezertarako balio duten. Dena den, gauzak herri xehearentzat esanak daude batipat, gaurko zurrumbiloan zertxobait galdua sentitzen den jendearentzat.

Bestalde, lantxo hau aspaldi samar zirriborratu nuen eta beharbada azken hilabeteotako giro aldaketa ez da gehiegi nabari bertan. Dena dela, apro-

pos eta berriaz, simplekiro mintzatu naiz hemen, azken hitza esateko prenteriorik gabe eta batipat publiko handiak ulertzeko moduan. Bai bait dut halako susmo bat, alegia, zenbait planteamendu ez dela sekula behar bezala ailegatzen jende xehearengana.

JOXE LIZARRALDE

Sozialismoa: Mugimendutik Alderditara

Euskal Herriak bere Alderdi Sozialista behar du orain.

Europar gauzak estankaturik bezala daude. Alderdi sozialistek eta komunistek ez dute aurrerapenik egiten. Beren aspaldiko posizioei ezin gain hartu. Gizartea behin betiko partiturik dagoela, ematen du, eskuin eta ezker-tar. Eta ez eskuinak eta ez ezkerak, batak bestea ezin duela menderatu. Enpate luze bat da.

Hemen ezer ez da aldatzen. Hirugarren Mundua ari da aldakuntza bizi-bizian. Europako gazteria sozialista, Hirugarren Mundura begira jartzen da. Algeria, Vietnam, Kuba. Maoismoak indar hartzen du. Ho Txi Minh, Mao, Che Guevara, izango dira gazteon idoloak 68-ko maiatzean eta harrez gero.

Horiek behintzat iraultza egiteko gauza dira oraindik!

Gainera, Hirugarren Munduak benetan hirugarren bide bat asmatu duela, uste da, bai Amerikatik eta bai Sobiet Batasunetik aparte. Eta Hirugarren Munduan ikasi nahi da, Europar iraultza nola egin...

Gutienez mugimendua sortu zen. Astinaldi gogorra eman digute urteok, beren ilusio eta desengainuekin. Eta ez da dudarik, mugimendu sozialista berriz ere mugimendu bat bihurtu dela. Mugitzen dela, beraz.

Alde batetik errealismo aldera jotzen da. Italiako eta Frantziako Alderdi Komunistek ez diote idanik hain-

beste begiratzen purismo doktrinalari. Beren parterik gabe eraiki da Europa gerra ondoan. Baina, luzarora, herolko eta garbi bezain eroso eta antzu da, gobernatzeko kargutik beti urruti egotea. Alderdiok dileman aurkitzen dira: gizarte antolatzeke agin-pide eta kargu beti besteetzi utzi, edo lehenik berak eraberritu, Gobernura iritxi ahal izateko eran, gizartea eraberritzeko. Zeuden zeudenean, oposizio osasungarri hutsa izatera kondenaturik zeuden betiko.

Alderdiok sistiman «integratu» ala, zeharoko sistima ukatzaileak ere indarberritu dira. Hots, dena batera nahi dutelako, zer nahi duten esan beharrik ez dutenak. Ezker sutsuak, ez gupida eta ez konpromisorik, erreformismo ororen kondenatzaileak. Gure oilar bortitzak, kasta honetakoak dira. Oraindik.

Halaxe gertatu beharra zegoen, zeharoko ukazio garaia zen artean. Dena zapalduta, lotuta zegoen gizartea, mugimenduan jartzea zen lehenengoa. Baina, orain, mugimendu sozialista orokortatik Alderdi Sozialista konkretu, mugatu batetara ailegatu beharra dago. Horrek nahitaez dakarren galera baino haundiagoa izan da irabazita.

Ez dago euskal gizartearen antolaketa besteen eskuetan uzterik. Geure sozialismoa egingo dugu.

JOXE AZURMENDI

UNIBERTSITATEA

Behin ba omen ziren bi erri.

Erri batean, urruti zeudenak begiz ezin ikusi zituzten miopeak jaiotzen ziren, eta bestean, berriz inguruak ezin ikusi zituzten begi-lausoak edo presbitak.

Eta batasuna agin-bide zutela, justizia egitea erabaki zen.

Demokratak zirenez, erririk aundiena zein zen ikustea erabaki zuten lehendabizi, eta alde batekoen eta beste-koen kontaketak amaitu zirenean, garbi-edo ikusi zen miopeak gehiago zirela. Hala, demokraziak organoan

agintzen duen bezalaxe, presbizia sufritzen zutenei miopeen kristal berak jartzea erabaki eta agindu zen legez.

Ara nola, eta miopeen bihotz zabalari esker, presbizia sufritzen zuten guziak ere miopeak erabiltzen zituzten kristal-mota berdinetik begiratzeko graziaren baimen-mesedearen dina egin ziren.

Unibertsitateak, betaurrekoaren antzekorik badu.

Eta imutuak ere bai.

MARTIN UGALDE